

Berlingo harresia Europako historiaren, gurre historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidean sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarria inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia egarria eta infernu beltz baten erakundeak.

1937-2017

di Europaren zoria horixe dela: ilusiozko etorkizuna oinazetan murgildurik erditu beharra.

zati-tuaren ikur, Europa zati-tuaren ikur, gizadi zati-tuaren ikur, eta, zergatik ez, gutako bakoitzak barruan daramagun zatiketaren ikur.

Berlingo harresia Europako historiaren, gurre historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidean sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarria inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia egarria eta infernu beltz baten erakundeak.

1937-2017 80 URTE 1937KO EGUNAREN URTEURRENA EGUNKARIAREN ALDARRIA EUSKAL KAZETARITZAN (1976-1986) ZERTZELADAK

Berlingo harresiak 25 urte eta gure Europa-ko historiaren 25 urte, behin eta berri zati-tuaren ikur, eta, zergatik ez, gutako bakoitzak barruan daramagun zatiketaren ikur.

ezin hobirik zuzendu nahi baldin badugu.

Alde honetatik, bai mundu eta bai Europa mailan eta baita gizabanako bakoitzaren mailan ere, nekez horma batek izan dezake Berlingoak bezainbat garrantzi nazioarteko politikaren aldakuntzan.

Honegatik, Berlingo horma apurtzen den egunean, harreman europarrak etapa berri batean sartuko dira eta orain arteko ametsa gaizto honetatik irteneo.

Erretratuak, auzoak, noski, gaur eguneko giroari arrotzak zaizkion beldurrak aitzakitzat hartuz, europarrek zati-tuaren fikzioa iraurerazi nahi dutenak, alemaniarren erdibitzea eta Berlingo hormari eutsiz.

1937-2017
80 URTE

Alde honetatik, bai mundu eta bai Europa mailan eta baita gizabanako bakoitzaren mailan ere, nekez horma batek izan dezake Berlingoak bezainbat garrantzi nazioarteko politikaren aldakuntzan.

Honegatik, Berlingo horma apurtzen den egunean, harreman europarrak etapa berri batean sartuko dira eta orain arteko amets gaiztan ere, nekez horma batek izan dezake Berlingoak bezainbat garrantzi nazioarteko politikaren aldakuntzan.

Honegatik, Berlingo horma apurtzen den egunean, harreman europarrak etapa berri batean sartuko dira eta orain arteko amets gaizto honetatik irteneo.

Erretratuak, auzoak, noski, gaur eguneko giroari arrotzak zaizkion beldurrak aitzakitzat hartuz, europarrek zati-tuaren fikzioa iraurerazi nahi dutenak, alemaniarren erdibitzea eta Berlingo hormari eutsiz.

AITZIN OHARRA:

Nire gaurko egitekoa hemen ez da azterketa, baizik eta urte horietako materialak ordenatu, garaian kokatu eta oraingo talaiatik interpretatu. Kazetaritzara mugatuko naiz, aparte utzirik une historikoari dagozkion gainerako gertakariak eta giroa.

publikoa egin zutenean. Une hori, ez da beste bat. Une hori, gertakizun bat da. Geroztik euskarazko prentsa gertakizun horren inguruan mugitu baita”.

1. 1976, EUSKAL KAZETARITZAREN URTEA

Urte hau erabakigarria izan da. Jesus Mari Zalakainek bere tesian “gertakari fundatzaile”tzat hartzen du:

“Euskal prentsa izenez ezagutzen den fenomeno gertakizuna da peto-petoan eta hasi 1976an hasten da *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* euskarazko prentsaren alde apustu

Zeruko Argia izan da goiztiarrena berrikuntza bidean pausua ematen: euskal kazetaritzaren urte-tzat hartzen du 1976. *Anaitasuna* eta *Goiz Argi* datoz orpoz-orpo.

Ezaugarri bikoitza du urtearen izendapen honek: aldarrikapen eta errebindikazioa, bateko; eta besteko, alderdi praktikoa, aldizkariaren formatu eta eduki aldaketa, newsmagazine formatua hartuz.

Newsmagazine eredia modakoa zen estatu espainiarrean une hartan: *Cambio16*, *Doblón*, eta beste, dozenerdi bat bai. Gurean formatu hau hartzen dute *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak*. *Goiz Argi* ere aldatzen da, baina ez formatu honetara.

Berlingo harresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidear sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarrinon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxa

JOAN MARI TORREALDAI

SOZIOLOGO, KAZETARI ETA EUSKALTZALE.
JAKIN FUNDAZIOKO BURUA

Berlingo narresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidear sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarrinon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltz zalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidear sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarrinon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltz bihurtzen jakin duen historiarena.

Berlingo harresiak 25 urte eta gure Europa ko historiak 2.500. Behin eta berriz zatiketak borrokak, zapalkuntzak, gudateak, odol-ixurtzeak. Eta guzti honekin batera etorkizun ho beago baten itxaropena eta ilusioa, bai batirudi Europaren zoria horixe dela: ilustozko etorkizuna oinazetan murgildurik erditu beharra

Euskal kazetaritzaren urtearen izendapenak bi mezu nagusi dakartza: legitimitatea eta normalizazioa.

LEGITIMITATEA

Zein da euskal prentsa? Euskarazkoa bakarrik? Elebikoak ere bai? Eta zergatik ez Euskal Herrian argitaratzen direnak?

Euskarazko aldizkariak garbi dute: euskarazkoak bakarrik.

Sortzear dagoen prentsa elebidunaren aurrean euskarazkoek legitimitatea beretzat aldarrikatzen dute. Alegia, zentralitatea, izaera (euskarazko=euskaldun). Euskal adjetiboaren erabilerari dagokionez, ikuspegi honi, eta geroago erabiltzen den leloari (*Geu gara euskal prentsa*), Koldo Mitxelenak arrazoi ematen dio esplizituki:

“Esanaren arabera, euskaldun zahar nahiz berriek idatzirikako zernahi, literaturaren barrunbean sartzen baldin bada, euskal literatura da. Aitzitik Euskadiko jendeak –eta jakinaren gainean darabilt izen hau, *Euskal Herriaren* lehen zatiaren bitartez nahastea sor ez dadin-, erdaraz, edozein erdaratan, idazten duten neurrian ezin daitezke izan euskal idazle euskaltzale sutsu agertzen baldin badira ere, *erdal* idazle dira. Horrela, euskal idazle genuen Silvain Pouvreau; erdal idazle, haatik, Pio Baroja eta Jean de Sponde. Eskubide osoa dute, beraz, *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* iragarkietan oihukatzen dutenean: *Geu gara euskal prentsa*. Eta gainerakoak euskal prentsa dira euskarari sarrera uzten dieten heinean eta ez gehiagotan. *Obras son amores, y no buenas razones*, esan ohi da aski ezaguna dugun beste hizkuntza batean, eta ez dabilta oker, nik uste, hori diotenak”.

**ZEIN DA EUSKAL PRENTSA?
EUSKARAZKOA BAKARRIK? ELEBIKOAK
ERE BAI? ETA ZERGATIK EZ EUSKAL
HERRIAN ARGITARATZEN DIRENAK?**

**EUSKARAZKO ALDIZKARIEK GARBI
DUTE: EUSKARAZKOAK BAKARRIK**

Zertan esanik ez da euskal prentsa deritzonak erdarazkoa edo elebikoa ez duela begi onez ikusten. Prentsa elebiduna lehiakidetzat hartzen du. Eta arriskutsutzat euskarazkoa baztertzea ekar dezakeelako, berritasunaren, indarraren eta eragin-kortasun politikoaren izenean. Ez da zertan astia izan kalteen zerrenda egiteko: kazetariak edo idazleak kenduko dizkio, publizitatea, merkatu-kuota, besteak beste. Eta halaxe gertatu zen de facto. Eta, gainera, abertzale edo euskaltzale askoren kontzientzia lasaitu egin bide zuen.

NORMALIZAZIOA

Normalizazioa da bigaren aldarria.

Normalizazioa, (hobe: normalizaziorik ezak), zerikusi zuzena du zentsurarekin. Ez da kausa bakarra, baina bai esanguratsua eta nire ustez eraginkorrena.

Euskal kazetaritzan urte hauetan egiten diren planteamenduek iragana guztiz gainditu nahi dute hainbat alorretan. Honela laburbil ditzakegu:

-gaien tratamendu mugatuaren baimen baldintzatzailea gaindituz Informazio orokorrekoa izatea.

Parentsia artean izan, zentsura aparatoaren erruz euskal kazetarik ez zegoela informazio orokorrekorik: politikan edo arazo sozialetan saritzeko bakar batek ere ez zuen baimenik. Bai erlijioan, folkloean, "kulturan" komatxoan artean, edo nekazaritzan, adibidez.

NORMALIZAZIOA DA BIGAREN ALDARRIA.

NORMALIZAZIOA, (HOBE: NORMALIZAZIORIK EZAK), ZERIKUSI ZUZENA DU ZENTSURAREKIN. EZ DA KAUSA BAKARRA, BAINA BAI ESANGURATSUA ETA NIRE USTEZ ERAGINKORRENA

-amateurismoa gaindituz profesionaltasuna.

Profesional edo liberatuak gutxi batzuk ziren. *Anaitasunak* eta *Goiz Argik* osoki bat ere ez, *Argiak* hiru, oker ez banago. Etorkizunak eskatzen zuen baldintza minimoa profesionaltasuna zen, dedikazio osoko jendea, eta kazetaria.

-ordena erlijiosoen babesa gaindituz jabego propioa eta egitura autonomoaren jabe egitea.

la salbuespenik gabe kazeta guztiek atzean ordena erlijiosoren bat dute, horrela bakarrik baitzen posible

baimena lortzea frankismoan, Konkordatoari esker.

-euskararen erabilera literarioari eranstea erabilera periodistikoaren lanketa. Literarioa, edo erlijiosoa, edo ideologikoa, berdin dio, hori izan da euskararen tradizioa, eta ez kazetaritzaren alorrekoa. Eta izan duena ere ez dugu ezagutu, ez Iparraldekoa, ez Hegoaldekoa, gerraren eta mugaren etenen erruz.

Normalizazioaren proposamenak hori guztiori zuen atzean.

ASTEKARIEN ORDUA

-1992 arte, urrutiko erreferentzia da egunkaria.

-ahobatez onartzen da astekariaren garaia dela, eta nahikoa lan dugula astekari on bat egiteko ere. Nahikoa testigantza: 24 orduak euskarazen, 1976 + *Jakinen* zenbaki monografikoan, 1982 + *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan.

Bi hitz, egoera petral honen atzetik zentsura dagoela azaltzeko.

ZENTSURA

-Sarri edo beti testuaren gain Administrazioak egin ohi zuen kontrola da zentsura. Baina ez da hori bakarrik. Ez da txantxetako edo arbuizatze zentsuraren kontrol tematikoa. Hilabete gutxi lehentxeago jasan zuen *Anaitasunak* eduki zentsura, Txiki eta Otaegiren kasua dela eta. *Bagoaz* izenarekin idatzi genuen editoriala, eta ordezkatu egin behar izan genuen *Iraun* izeneko batekin. Zorte handiz ez genuen isunik izan, Luis Martinez Garnica jauna delegatu bezala sartu zen egun berean negoziatu bait genuen.

Zentsuraren markak, testu zentsuratuetan arkatzen markak jarraitzea ez da erraza baina bai egingarria.

Askoz zailagoa da autozentsuraren ondorioak atzematea, zina, edota egitasmo eta saio frustratuen berri izatea. Zera esan nahi dut: zentsura enpresarialaren kalteak izkutuan

gelditu dira gehienetan. Frankismoan ez dago enpresa askatasunik. Enpresa editorial bat abiatzeko unean, MITen baimena eskatu behar da. Eta baimena lortu ahal izateko, bi dokumentu mota aurkeztu behar dira: batetik, eskatzaileen fitxak; eta bestetik, argitalpenaren ideologia eta objektua, zehatz eta mehatz.

Zertan esanik ez da agintearen gogoko ez ziren pertsonak tarteko direnean, jai duela proiektuaren onarpenak. Eta berdin proiektuaren pentsamendua progresista edo abertzale edo euskaltzalea bada. Proposatzaileak bere benetako asmoa moztortzea ekar dezake honek, gezurra esanik proposatzaileen izenetan edo/eta proiektuaren asmoetan. Lortzekotan horrela lor zitekeen baimena, baina arazoak hurrengo egunean hasten ziren, mugak gainditzearekin batera: deklaraturakoaren bat ez bazetorren, zasta!. Beraz, tranpa saduzearraren definizio perfektua da.

Ez da kasualitatea euskarazko aldizkari bat bakarra ez izatea informazio orokorreko, edozein gai tratatzeko eskubidearen jabe. Informazioa, informazio orokorra alegia, Estatuak beretzat gordea zuen. Euskal aldizkariak (eta irratiek berdin, kasurako, Herri Irratiak) mugatua zuten gaia: izan zitekeen literatura, izan zitekeen folklorea edo herri kultura, izan zitekeen erlijioa, edo informazio lokala. Sekula ez informazio orokorra.

Zentsurak bazuen bere hizkuntza politika ere: euskara ez zen hizkuntza osoa, normalizatua, baizik eta bigarren mailakoa, funtzio sekundarioetarakoa. Baserriaren mundukoa, bertsolarientzat balekoa, kristau dotrinarako erabilgarri. Baina sekula ez politikarako, filosofiarako, goi mailako kulturarako. Zentsurarentzat euskara ez da hizkuntza kultua.

Laburtuz, 1976ko deiadarrak hori guzti hori du bere barruan. Eta berriz diot, saio praktikoa ere egin zen, newsmazine formatua hartuz, modakoa, "normala" komatzoen artean, modernoa, homologagarria (kontzeptu inportantea hau ere urte luzetan, gero kritikaturia).

EUSKAL PRENTSA KINKA LARRIAN

Asmoak eta ahaleginak tarteko izanik ere, ez zen lortu minorizazio egoera gainditzea. Prentsa elebiduna plazaratuta gero, okertu egin zela ere esan daiteke. 80ko hamarkadaren hasieran krisia da nagusi bai *Zeruko Argian* eta bai *Anaitasunan*. *Goiz Argi* ordurako bi eleko izatera pasea zen. Desafio nagusia bizirautea da urte hauetan.

EZ DA KASUALITATEA EUSKARAZKO ALDIZKARI BAT BAKARRA EZ IZATEA INFORMAZIO OROKORREKO, EDOZEIN GAI TRATATZEKO ESKUBIDEAREN JABE. INFORMAZIOA, INFORMAZIO OROKORRA ALEGIA, ESTATUAK BERETZAT GORDEA ZUEN

Zeruko Argia 1980an izenez eta jabegoz aldatu egiten da: kaputxinoen eskuetatik *Zeruko Argia* kooperatiba izatera igarotzen da: lan talde berria eta autonomia da. *Argiari Zeruko* erori zaio. Baina jabego aldaketak karga ekonomikoak ditu, eta hauei aurre egiteko gorriak ikusi behar izan ditu ekipo berriak.

Anaitasunak 1976 urtean abiatu zuen independentziaren bidea. Baina prozesua ez zen burutu. Frantziskotarren hirugarren ordenakoen esku zegoen Madrilen. Lortu zen haiek jabegoa saltzea, edo hobe saltzeko prestutasuna. Iker taldea zen erostekoa, tratuan ados jarrita baitzeuden. Baina Iker ekonomikoki krisian sartu bide zen, EHAS zela eta ez zela. Kontua da operazioa itxi gabe gelditu zela. Jabego aldetik linboan gelditu zen. Gainbehera librean, hobeto esan.

Egoerari aurre egiteko, elkar hartuta aritu ziren *Zeruko Argia* eta

Anaitasuna. 1980ko udazkenean elkarrekin egin zuten deialdi bat, "egoeraz eta etorkizunaz guztiz kezkatuak". Eta biek, eta gainera Jakin eta Saski Naskik, kanpaina bat egin zuten, harpidetzak eta dirua erdietsi nahita. Prentsa euskaraz izenpean eta lelo indartsu honekin: *Geu gara euskal prentsa*. Hemen ere euskal prentsaren eskusibotasuna euskarazkoentzat esijitzen da. Baina ez zituen konbenzitu ez euskaltzaleak, ez abertzaleak. Porrot egin zuen kanpainak.

Prestigioa, gaurkotasuna, eragin politikoa, abertzaleen tiradizioa, idazleen tentazioa, publizitatea... erdarazkoetara emigratu dute jada.

HURRENGO URTEAN, 1977AN, PLAZARATZEN DIRA DEIA ETA EGIN EGUNKARIAK, EGUNKARI ELEBIDUNAK. EUSKARAREN TRATAMENDUA BI MODUTAN, BI MODU DESBERDINETAN, EGITEN DUTE

2. KAZETARITZA ELEBIDUNA

Stricto sensu erdal kazetaritza edo sasielebiduna esan beharko genuke, euskarari eman zaion toki txikia eta degresiboa kontuan izanda, baina tira. Eskuzabal izanik, prentsa elebidunaz hitz egin dezagun.

1976an abiatu zen berrikuntza, goiztiarrenak astekariak zirelarik: *Punto y Hora*, *Garaia*, *Berriak*. Eta *Hauzalan*, *Sorka*, eta geroago *Ere*, etab.

Salbuespenak salbuespen (PyH da bizialdi luzeenakoa, 1990 arte), iraupen gutxikoak izan dira: *Garaia* eta *Berriak* urte beterik ere ez.

Bizialdi laburra, eta politikara lerratua, eta euskararen tratamendu eskasa, horra hiru ezaugarri.

Siadecok egin estudioan elebitasun desorekatua azpimarratzen du: "han concedido muy poco espacio al euskera. Para ser bilingües su comportamiento no llega al mínimo (...) En la mayoría de sus números no han llegado al 10%".

Hurrengo urtean, 1977an, plazaratzen dira *Deia* eta *Egin* egunkariak, egunkari elebidunak. Euskararen tratamendua bi modutan, bi modu desberdinetan, egiten dute. Laburbilduta esan dezagun, *Deiak* egunkaria egunkariaren barruan planteatzen duela, euskarazkoa erdarazkoaren baitan. Eta *Eginek*, euskarari eskaini nahi dion % 25 hori sekzioetan barrena barreiatuak. Izan ere, aurretik ere ikusia eta ikasia genuen, euskararen joera, berezkoa bailitzan, (idazleen eta irakurleen aldetik) euskaraz euskal kontuak erabiltzekoa dela. Inportantea zen, zalantzarik gabe, kasu batean eta bestean, gaien tratamendua zabaltea eta autonomo bihurtzea. Baina ez zen hori gertatu.

EUSKARARE PRESENTZIA EGUNKARIETAN: HIRU EREDU

Urteak aurrera joan ahala, gainerako egunkariak ere euskarari leku egin diote eta euskararen presentziari formula desberdinak eskaini dizkiote, bakoitzak berea.

Hiru eredutan-edo bana genitzake saiook:

1. euskarazko egunkaria egunkariaren barruan: *Deia* (lehen aldian, euskal atalean 12 bat lagun Martin Ugalderen gidaritzapean, gero Amatiñorekin) + *La Voz de Euskadi*-ko *Orria*.
2. separata zein gehigarria (sailtxo autonomoa, baina ez periodistikoa, kulturala baizik): *El Correo*-ren *El Correo escolar* - asterokoa + *El Diario Vasco*-ren *Zabalik* (1986-1992, 12 orrialdeko gehigarria) + (*Eginen A ze astelehena* eta *Egunon*) + Navarra Hoy-ren *Nafarroa Gaur* gehigarria (8 orrialde)
3. kazetaritza integratua (sailez saileko erabilera): *Egin*.

Galdera da, gure oraingo ikuspegia kontuan hartuta noski, haue-tako zeinek edo zeintzuk eman dioten bide egunkariari, eta baiezkoan zein neurritan.

3. EGUNKARI PROIEKTUAK

1976 - ERRIA

"Aritz" deitu Elkarte bat sortu zen, Manu Oñatibia buru eta Joxe Murua buruorde zirela "Erria" izeneko egunkari bat argitaratzeko. Zuzendari izateko Santiago Aizarna zuten aukeratu. Euskerazalea elkartea eta *Goiz Argi* aldizkaria zeuden atzean.

Aritzen idazkariaren prentsa ohar baten bidez izan genuen, zurrumurruen gainetik, berri zehatzagorik 1976ko ekainean:

"Erria egunorokoa gure izkuntzan": "guk ere, egunoro, orduoro ari bearra dugu gertatuak eta gertatze-koak euskeraz jaso ta zabaltzen. Bear orren lagungarri datorkigu ORAIN aspalditik galerazia genduan aukera, eta Euskeraz egindako EGUNOROKO bat argitara eman dezakegu laister.(...). Zenbait eragozpen gainditu ditugu ARITZ sortu genduanok. Emandako pausoak, ala ere, gure Erriak berak ebaki bear duan bidearen atari besterik ez dira. Baiña gero oberik izango den amets antzuan, ORAIN eta EMEN eskeintzen zaigun aukerari muzin egitea, GAUR egin daitekean Euskerazko egunoroko bakarari muzin egitea da. GAUR, beraz, guztion artean egin dezagun gaurkoz egin dezakegun euskal egunkaria: "Erria", amasei orrialdeak Euskeraz lituzkeena".

Jesus Mari Zalakaini zor diogu informazio gehiago. Honela azaldu zion Manu Oñatibiak *Erria* egitasmoa:

"Guk beti euskara izan degu elburu. Euskera, euskera eta euskera. Eta ikusten gendun emengo mezu-bide guztietan, bai izparringietan, bai irratietan bai alde guztietan, erdara besterik etzala. Eta jendeari euskera

irakasteko eta euskerak duan sena barruan sartuarazteko biderik egokiena izparringi bat zala. Eta bildu egiten ginen halaxe, askotan, badakizu Euskerazaleak eta beste, artian Euskerazaintza sortu gabe zegoen eta. Bildu ginen behin Donostian, Joxe Luis Iriarte, Joxe Murua, nere anaia Jon, gero zuzendari izateko aukeratu izan zen Santi Aizarna eta ni(...). Guk hemen genittun gure lagunak eta gure adiskideak zehaztu eta ikusi gendun gu ez ginela naiko. Ondoren Bizkaiko Euskerazaleetara jo gendun. Hara joan ta oso lagun onak genittun batez ere Iñaki Zubiri ta Agustin Zubikarai ta... Bildu ta esan

**"GUK HEMEN GENITTUN GURE LAGUNAK
ETA GURE ADISKIDEAK ZEHAZTU ETA
IKUSI GENDUN GU EZ GINELA NAIKO"**

ziguten, hara hau gure ustez diru alde-tikan arazo oso larria da ta guk hemen Blboko dirudun jendea bilduko dugu; zuek ona etorri zaitezte, ta halaxe, Euskerazalenean bildu ginen. Batzuk ezagutzen nittun, Xabin Zubiri esate baterako; besteak ez dittut gogoan. Joxe Luix Iriarte eta biok joan ginen, gure asmoa zer zen adierazteko. Joxe Luixek azaldu zuan arazoa. Nik begiratzen nittun ta "bai, bai, oso ondo, oso ondo" esaten zuten baina argi eta garbi ikusten zuten garai artan euskera hutsez egindako egunkari bat eziña zala. Argi ta garbi ikusi nuan nik handik dirulaguntzarik ez genula izango. Beak egunkari baten bearra, ta eusk era kutsuko ta euskal sena duan egunkari baten bearra ikusten zuten. Eta haiek berak andik oso denbora gutxira 'Deia' atea zuten. Ori ikusita, guk soziedadea sortuta gendun, Aritz izeneko, Consejo de Administración

ta dena sortu zan, eskriturak eta denak eginak, pentsatu gendun, "guk orain zer egin bear degu" ta olaxe jendeak atzera egin zun".

Euskal kazetaritzako jendeak ez zuen begi onez ikusi *Erria* egitasmoa. Egia esan, zurrumurru ugari eta informazio fidagarri gutxi genuen, baina gerora ikusi denez egin zitzaizkion kritikak artezak izan ziren: proiektu periodistikoari buruz, kazetari taldeari buruz, ekonomiari buruz, hizkuntzaren kalitateari buruz.

1983 - IPARRAGIRRE ETA ORAIN

1983an edo bai Iparragirre enpresak eta bai Orain enpresak euskarazko egunkaria egitasmoak landu omen zituzten, proiektu bana batek *Dei*arekin egiteko eta besteak *Egine*kin. Orainen proiektua 12 orrialdekoa zen, 18 langiletakoa. Iparragirrearenak, aldiz, 24 orrialde izango zituen eta 40 langile. Biek tirada berdina zuketen, 10.000 ale.

Berri dokumentaturik ez omen dago eskura. Oso gutxi dakigu Iparragirrearen proiektuak, ia deus ez, eta gehixeago Orainekoaz. Ez dakit, bestalde, zein garapen maila izan zuten.

4. EGUNKARIAREN ALDARRIKAPENAK ETA EZTABAIDAK

1982- MIKEL ATXAGA, AITZINDARI

Mikel Atxaga izan da egunkariaren gaia modu sistematikoan plazara atera duen lehena, euskalgingtzak astekariak hobesten zituen aldi berean. Lehen artikulua hauxe da: "Euskarazko egunkari bat kaleratzeko modua", *Deia*, 1982-11-28.

Abiapuntuko bi oinarri zituen Atxagak: bat, telebista eta irrati ostean egunkariaren ordua zela, alegia; eta bestetik, prentsa elebidunean egindako saioen porrotaren ondoren, proiektu autonomoa behar duela egunkariak:

"EITB osatzeko Euskarazko egunkari bat kaleratzeko ordua da",

"Euskal telebistara eta irratiara zuzendu ditu Eusko Jaurlaritzak ahalegin guztiak, jarraitzen zuen, hizkuntza batentzat eraginik handieneko komunikabideak direlako. Baina lan hori osatzeko euskarazko egunkari bat behar da. Askoz ere diru gehiago gastatu gabe egin diteke, gainera".

Prentsa elebidunaren porrota:

"Berri bat sortzea baino lehenagoak euskalduntzea ez al da bide hobea?, galdatuko du norbaitek. Iritzi horretakoa nintzen ni ere, baina ezinezkoa dela erakutsi dit bizitzak. Gero eta leku gutxiagorekin geratzen da euskara. Eta leku pittin hori ere gehiegizkoa gertatzen zaio egunero bete beharra duen kazetariari, gai, berri eta gertaerarik garrantzizkoenak erdarak harrapatzen bait dizkio. Egunkari barruan orrialde batzuk euskaraz emanaz ere ez da arazo hori konpontzen, soluzio horren aldekoa eta gurasokidea izan banaiz ere".

Atxagak funtsean proposatzen duena, zera da, *Egin, Deia, Diario Vasco* eta *La Voz de Euskadin* argitaratara ematen diren orrien orde, egunkari osatu bat egitea.

Proposamenak ez zuen aurrebiderik izan. Utopikotzat eta bide-raezintzat hartua izan omen zen, dio Atxagak berak 1984ko otsailean.

Gaia landuz jarraitu zuen Mikel Atxagak, hala ere, 1983ko udazken-neguan eta 1984ko hasieran. Dozena erdi bat artikulua bai. Hauetan, ordea, ez du bere ikuspegia sistematikoki lantzen. Eztabaida giroan ematen ditu iritziak.

1983- ARGIA, SEKTOREAREN ALDE

Argiak, aldiz, bestelako ikusmoldea zuen. Euskal prentsak duen arazo nagusia konpontzeko modua ez da egunkaria. Erakundeek euskal prentsa bere osotasunean hartu behar dute, eta herri inizatiba babestu. Egunkaria bere bakardadean planteatzea, "fuite en avant" izan daiteke.

Mesfidantza handiz ikusten du *Argiak* Atxagaren proposamena, *Argiak* berak duen egoera propioa eta sektorearena oro har kontuan hartuta:

“hainbat urtez Anaitasunak bere hiltzoritik eta ARGIAk bere aste-roko presentziaz euskal prentsaren izateko eskubidea erreibindikatzen pasa ondoren oihartzun faltak etsiturik gintuenean hara non aurten, bazter guztiak astintzen eta buruz gora ipintzen hasi bait da egunkariaren asunto horrekin”. (1983.10.02)

“bide bakar hori aldarrikatzen duten ia guztiak frustraziotik datoz, hau da, euskara prentsan sortzeko nolabaiteko saioa egin ondoren ustel irten diren horietako batetatik. Hala nola, egunkari eta aldizkari diglosikoetatik. Egia da guztiok sufritu dugula egunkari eta aldizkari diglosikoetan euskarari emandako tratamenduak sortutako frustrazio hori, baina guztiok dakigu frustrazioa ez dela abiapunturik onena edozein korapilori irtenbide jator bat topatzeko orduan”. (1983.10.09)

1983ko udazkenean lau editorialetan landu zuen bere ikuspegia *Argiak*.

Bi pasarte hauetan laburbildu daiteke ikuspegi hau, gureari dago-kionez:

- “Euskal prentsa osoa babestu behar da:

Ez da aski egunkari baten proiektuarekin aurrera jotzea; gure abururako egunkari hori aurrera ateratzen ematen diren bitarteko berdinak eskeini behar zaizkie martxan dauden edo eginkizun leudeken beste medio edo prentsa-bide guztiei”. (1983.09.25)

- “Egunkariak ezin du berak bakarrik euskal prentsaren normalizazioa lortu:

Euskal prentsaren errealitatea, iragana eta esperantza, egunkari bakar batetara mugatzea, desbideraketa arriskutsu-netako bat dela deritzogu”. (1983-10-9)

5. EUSKO JAURLARITZAREN ESKUHARTZEAK

ESTATUTUA

Eusko Jaurlaritzak Gernikako Estatutuari esker badu eskubiderik telebista, irrati eta prentsa propioa sortu eta garatzeko.

EUSKO JAURLARITZAK GERNIKAKO ESTATUTUARI ESKER BADU ESKUBIDERIK TELEBISTA, IRRATI ETA PRENTSA PROPIOA SORTU ETA GARATZEKO

19. artikulua

1.- Euskal Herriari dagokio giza kominikabideei dagozkienetan Estatuko oinarrizko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.

(...)

3.- Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

EUSKO JAURLARITZAREN KOMUNIKAZIO POLITIKA

Eusko Jaurlaritzak berariaz EITB landu du, hau da, telebista publikoa eta irrati publikoak. Gainerako komunikabideak, garai hartan telebistarik ez baina bai irratiak eta idatzizkoak

euskararen normalizazioaren ikuspegi soiletik lagundu zituen. Egunkariari buruz, kasurako, ez dut ezagutzen egitasmorik landurik. Gaia plazaratu zenean ere gorabeheratsua izan da jarrera, noiz pribatuaren alde, noiz publikoaren alde, noiz partekatuaren alde edo instituzionalaren alde.

GAIA PLAZARATU ZENEAN ERE GORABEHERATSUA IZAN DA JARRERA, NOIZ PRIBATUAREN ALDE, NOIZ PUBLIKOAREN ALDE, NOIZ PARTEKATUAREN ALDE EDO INSTITUZIONALAREN ALDE

Bi ekimen ekarriko ditut hona, albiste agentzia eta *Eguna* eta *Hemen* aldizkari-egunkariak:

ALBISTE AGENTZIA

Albiste agentziaren gaia behin eta berriz agertu da urte hauetan.

Defendatzailerik sutsuena, Euskara Zerbitzuaren Arduraduna (1982-1985) zelarik eta gero ere Martin Ugalde izan da: aurrena albiste agentzia eta gero egunkaria. Behin eta berriz errepikatu ohi zuen, inoiz edo behin kazetari eskola tartekatuz. Hori ote zen Eusko Jaurlaritzaren tesia? Ez da gauza segurua. Martinek beti esan ohi zuen bera iritzi pertsonalean mintzo zela.

Hona Martin Ugalderen esaldietako batzuk:

"hasi behar dugu pentsatzen egunkariarekin batera edo aurretik, euskal agentzi bat behar dugula.(...) Agentzi honetarako aski litzateke 10-12 itzultzaile on, eta hauek izango ziren, azken finean, euskaraz idatzitakoa mantenduko luketenak". (1984)

Gure herrian euskal agentzia bat sortzen ez den bitartean oso

mugaturik geratzen dira euskarazko komunikabideak. Euskal egunkaria? Noski. Baina euskal agentzia behar dugu lehendabizi". (1985)

Ez du ematen Eusko Jaurlaritzak albiste agentzia abian jartzeko gogo bizirik izan duenik. Iniziatiba ez zen berea izan, Martin Ugaldek makina bat aldiz proposatu arren.

Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Ezkerrak egin zuen proposamena 1985ean. Eta Gobernuak aurrekontuetatik 20 milioi pezeta gorde zituen. Baina Legebiltzarraren konpromisoa edo agindua ez zuen berehalakoan bete, Luis Bandres Kultura Sailburuak esan zuen uste baino zailagoa zela erabakitzea, bost edo sei proiekturen artean aukera egitea. Kontua da indarrean jarri, ez dela jarriko 1987ko abendura arte, beraz *Eguna* eta *Hemen* atera eta gero.

Eta orduan ere ez da albiste-agentzia izango Vasco Press agentziarekin egindako kontratuaren bidez itzulpen-zerbitzu bat besterik. Ez du ematen, bestalde, erabiltzaile asko izan duenik.

1992an, bost urteren buruan, berriro gabe bertan behera uzten da zerbitzu akordioa, berriro gabe, eta kitto.

EGUNA ETA HEMEN

Formula bitxia da astean behingo egunkariaren hau. Nola deitu? Astekari-egunkari? Ontzat emango nuke Zalakainenek bere doktorego tesian darabilena: astegunkaria.

-Eusko Jaurlaritzak 1986ko uztailaren 22ko aginduaren bidez finkatu zituen diru-laguntzak. Bertan esku hartzeko hiru baldintza jarri zituen: "beharrezko lege-nortasunez horniturik" egotea, "behar den azpiegitura" izatea eta "Ekonomia eta Herriogasun Saileko 1986.eko otsailko 28ko agindu bere osotasunean" betetzea.

-Eta gero baldintza teknikoak: sei erredaktore izatea, ohiko egunkariaren atalak oro izatea, goizeko egunkaria izatea, 32 orrialdekoa eta

horietatik % 75 aktualitate-informazioz osatzea, Euskal Herriko lurralde guztietan banatzea eta gutxienez 10.000 ale argitaratzea.

-Polemika iturri izan ziren presa eta datak: susmagarri egin ziren baldintza tenporalak: uztailaren 22an egin zen deialdia, projektua prestatu eta aurkeztu abuztuaren 15erako egin behar zen, eta egitasmoa abian jarri irailak baterako. Dena opor garaian.

-Jarritako baldintzen arabera zera uler daiteke, enpresa periodistiko jada bazirenentzat prestatua zegoela deialdia.

(Egunkari elebidunen esperientziatik harago doa planteamendu hau, baina ez nahikoa nire iritzian. Ematen duenez, erdarazko egunkaria atera ohi duten enpresa periodistikoen azpiegitura baliaturik planteatzen du Eusko Jaurlaritzak balizko euskarazko egunkaria, bide honetatik jotzekotan behintzat. Eta ez enpresarialki autonomo. Horixe salatu nuen 1986an *Jakinen (Ohar laburrak euskal prentsa berria dela eta), Euskaldunon Egunkaria* usaitu ere egiten ez nuen garaian).

-Iparragirre eta Orain enpresak aurkeztu zuten proiektu bana. *Argia* ere aurkeztu omen zen deialdira, baina lehiatik kanpo utzi omen zuten "proiektuek egunkari baten estrukturan integratuta egon behar dutelako", Zumalaberi sineste aldera. Mikel Etxebarriak ukatu egiten dio Jesus Mari Zalakaini *Argiak* Administrazioari aurreproiekturik aurkeztu zionik.

Iñaki Zarraoarrekin polemikan (kioskoetan *Argiak* ez zuela zabaldu nahi, dio honek), Joxemi Zumalabek hau dio "*Gaizki eta gaizto*" editorialean: "*ARGIAK, uda hartako abuztuan, nire sinadurarekin Kultura eta Turismo Sailak Uztailaren 24ean argitaratutako aginduari erantzunez aurkeztu nuen proiektu idatzian azaltzen ditu bere egitasmoaren ezaugarri nagusiak. Proiektuaren bigarren puntuan, Produktoaren zehaztasun teknikoak izenburupean, honela ageri da: "...igandero goizez argitaratuko da, goizean goizetik gisa horretako gainerako egunkarien ordu berean salgai ipiniko delarik. Proiektorekin batera*

doa ere banaketak estaliko dituen salmenta-puntu guztien zerrenda".

-Formula bera ere eztabaidagai izan zen, hots, formula hau egokia eta emankorra al da Egunkaria prestatzeko edo lortzeko?

Josu Legarretaren iritzian, "hartutako jokabide hau, bihar-etzi egunkari-egunkariak lortzeko lehen pauso bat baino ez da (1986.09.11)".

Luis Mari Bandresek bide esperimentaltzat jo zuen.

Mikel Atxagaren ustez frogaldi bat izan da: "Eguna eta Hemen ez ziren astekari izateko sortu, egunkari eguneroko bilakatzeko frogaldi bat egitearen baizik. Hori zen nere ustez behintzat hasierako asmoa. Frogaldi hori beharrezkoa zen kazetarion trebakuntzarako eta azpiegituraren eta baliabideen erabilera egokia lortzen ikasteko, baina frogaldiak eman duen emaitza, ona gainera... egunkari bat egiteko gai garela erakutsi dugu behintzat (1987, *Argia* urtekaria)".

IPARRAGIRRE ETA ORAIN ENPRESAK AURKEZTU ZUTEN PROIEKTU BANA. ARGIA ERE AURKEZTU OMEN ZEN DEIALDIRA, BAINA LEHIATIK KANPO UTZI OMEN ZUTEN "PROIEKTUEK EGUNKARI BATEN ESTRUKTURAN INTEGRATUTA EGON BEHAR DUTELAKO", ZUMALABERI SINESTE ALDERA

Joxemi Zumalabek besterik uste du: "Ez egunkari ez asteroko, astean behingo egunkari izate horrek mugatzen dizkie sustraietatik beren posibilitateak -beren borondatearen aurka seguruenik- eta eduki zezaketen emaitza ezinezkoa zaielarik esfortzu hori egin ondoren". (1987, *Argia* urtekaria)

Iritziak iritzi, badira abi pisu espezifikoa dutenak, bi zuzendarie-nak. Joxean Agirre, *Hemenen* zuzen-dariarena ez da azken ordukoa, bi urteko eskarmentuaren buruan egina baita, baina nago 5 urteren buruan ere bere iritzia ez zatekeela desber-din. Kontua da biek ala biek balorazio edo balantze arras diferentea egiten dutela:

EGUNA-K BERAK AZKEN PORTADAN:
"EGUNAREN AZKEN ALEA DA GAURKO
HAU. EUSKO JAURLARITZAREN
DIRU-LAGUNTZAK SORTARAZI ZUEN ETA
BERE LAGUNTZARIK EZAK BUKARAZTEN
DU"

JOXEAN AGIRRE, HEMEN-EN ZUZENDARIA:

"Ez dugu gizartean lekurik aurkitu

Egin dugun lana ukatzen ez badugu ere ez gara harro sentitzen eta erronkarik gabe, pittin bat frustraturik segituko dugu, itsusi jaio zirenen patua erremediatzen.

(...).

(Bi urte pasatu dira), eta ez dugu gizartean lekurik aurkitu. Ez dugu horretarako meriturik ere egin. Ez dugu eskusiba merkeenik ere kaleratu, ez dugu gure inguruan, txarrerako edo onerako, esamesik sortu. Ez dugu, besterik ez bada ere, eskandalu liparririk eragin. Eta koño!, laugarren boterea dela presumituz dabilen erakunde bilakatzeko, isil samarrik gabiltzala aitortu behar!".

AMATIÑO, EGUNA-REN ZUZENDARIA:

"Merezigarria ezezik derrigorrezko formula"

"Hemen"ek zein "Egunak" k heuren apaltasunean, zenbaitek uste

baino eskaintza oparoagoak egin dituzte euskara eta euskal prentsa normaltzeko bidean.

Batetik, beste ezein aldizkarik ez bezala, kioskoan erosi behar izaten dira, astez aste, eta ez etxean postaz edo harpidetzaz. Hau, besterik gabe, nolabaiteko iraultza da euskal kazetaritza munduan, bai ohitura-aldaketa dakarrelako, bai erosle jakineko irakurle segurua bihurtzen duelako eta baita, guzti honek, euskal prentsaren gizarte-presentzia zuzpertzten delako ere.

Bestetik, eta ondorioz, kioskora joan beharrak, eta erosle-irakurle bikotearen arteko binomio zuzenak eta aipatutako gizarte-presentzia horrek noizbaiteko egunkariaren bidea urratu eta erraztu dute.

Auskalo laster euskal egunkaririk ote den ala ez; auskalo egunkariaren sorrerak bi izpirringi hauek itxiazaziko ote dituen ala ez; baina horrela balitz ere, nik uste dut transizio formula hau, merezigarria ezezik derrigorrezkoa izan dela".

GAURKO TALAIATIK BEGIRATUTA

Trantsiziotzat hartu ala ez, nire iritzian egunkariaren bidean ez du ematen erro handirik kazetaritzaren lurrean itsatsi zutenik. Diru-laguntzei esker jarri ziren abian eta diru-laguntzak desagertzean beraiek ere halaxe desagertu ziren, bat-batean 1990eko irailean.

Ezin argiago dio *Eguna*-k berak azken portadan: "*EGUNAREN azken alea da gaurko hau. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak sortarazi zuen eta bere laguntzarik ezak bukarazten du*".

Trantsizioko formula bat da, bai, esperimentalak, frogaldi bat.

Eta ekarpenik bai?

Bi puntu kontuan hartuta baloratuko nuke, oraingo perspektibatik:

Bat, positiboa: gainditu du elebitasunaren formula eta honen porrotari darion frustrazioa: ez dira

nahasian ematen euskara eta erdara, baizik eta euskarazko egunkari batek eman beharko lukeen moduan, modu autonomoan.

Bi, erdibidekoa: ez da planteatu enpresa autonomia, justu kontrakoa baizik. Proiektu honek ez bezala *Euskaldunon Egunkariak* bere 11 puntuetako batean *conditio sine qua non* ematen du enpresa independentzia. Alegia, euskarazko eta erdarazko egunkariak enpresa berekoak ez izatea, ez izatea elkarren lehiakide enpresa berean, bai merkatuan. Uste baita kasu horretan, periodiku berean euskara eta erdara ematean gertatzen den gauza bera gerta daitekeela, hau da, erdara lehenetsiko duela enpresak euskarazkoaren kaltetan.

Dena den, *Eguna* eta *Hemen* astekari-egunkariaren saio honetan ikusiko nuke aldi baten bukaera, kazetaritza elebidunaren ustezko arrakastaz eta Egunkariaren balizko etorreraz diharduena. 1988an *Argiak* ematen duen urratsarekin, hobe, erabakiarekin, nago Egunkari erreal bati heltzen zaiola, *Euskaldunon Egunkaria* izango denari.

ARGIAREN HORDAGOA

1988an *Argiak* egunkaria egitea erabakitzen du. Eta hitza bete bi urte geroago. Atzeak erakusten du aurreak nola dantzatu. *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko lehen urrats erabakiorra 1988ko haxe da.

Egineko *A ze astelehena* atalean (portzierto *Argiakoena*) formulatu zen aurrenekoz: "Argiak egunkaria egingo du", honelaxe, *Argia* egunaren hurrengo egunean, 1988ko azaroaren 7an.

Ezin argiago azaldu zuen gaia egun batzuk beranduxeago Laura Mintegik (1988.11.10):

"Guk uste dugu egin daitekeela eta egin behar dela euskarazko egunkaria. Instituzioei adierazi nahi diegu egiten bada gurekin kontatu behar dela eta ez badute egiten guk egingo dugula. Instituzioen aurrean jarriko dugu egunkari egina eta eskatuko

diegu horri erantzuteko. Alde horretatik ikusten dugu Euskal Herrian ez dagoela beste talderik euskal prentsan kapazidade nahikoarekin hori egin ahal izateko geu izan ezik".

Taldea bakarrik ez, taldeaz gainera azpiegitura badu *Argiak*: "Gaur egun azpiegitura hau daukagula, egin dezakegu egunkaria, plazu nahiko hurbil batean". (1988.11.11). Alegia, *Antza* fotokonposaketa, *Gráficas Tamayo* inprimaketa, *Apika* informatika-etxea, horra *Argiaren* azpiegitura, *Euskaldunon Egunkariari* bizpahiru urtez azpiegitura emango diona.

Argiaren beraren eta euskal prentsaren "egoeraz eta etorkizunaz guztiz kezkatu" egotetik urte gutxitan egunkaria egiteko gaitasuna duela lau haizetara zabaltzera iritsi da *Argia*. Gero gerokoak.

**DENA DEN, EGUNA ETA HEMEN
ASTEKARI-EGUNKARIEN SAIO HONETAN
IKUSIKO NUKE ALDI BATEN BUKAERA,
KAZETARITZA ELEBIDUNAREN USTEZKO
ARRAKASTAZ ETA EGUNKARIAREN
BALIZKO ETORRERAZ DIHARDUENA**